

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak LHko tituludun eta ikasleek sustatutako 12 negozio-idea babestuko ditu

Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan enpresa-orientaziorako bulegoak jarri dituzte

Lunes, 07 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketako azken bost urteetako tituludunek eta datorren urtean ikasketa horiek amaitzen dituztenek sustatutako 12 negozio-idea babestuko ditu ikasturte honetan.

Horretarako, Hezkuntza Departamentuak hautemate-, orientabide- eta laguntza-


bulegoak jarri ditu Foru Komunitateko LHko ikastetxe guztietan. Hezkuntza kontseilaria, Jose Iribas, Iruñeko Maria Ana Sanz zentro integratuan negozioak sustatzeko dagoen espazioan izan da gaur, astelehena.

Proiektuari Ideación izena jarri zioten, ekainean [aurkeztu](#) zuten eta 30.000 euroko aurrekontua dauka. Asmoa da LHko kolektiboan ekintzailatza bultzatzea eta, horretarako, ahalik eta kostu gutxieneko negozio- eta autoenplegu-ekimen eta -ideiak denboraz hautematea (ekimen arinen filosofia, sustatzaileek bitarteko gutxi dauzkatelako), epe ertainera besteren konturako enplegua sortze aldera.

Jarduerak babespean abian jartzeko, ekintzaileek honako hauen laguntza jasoko dute: irakasleena, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarreko (CEINeko) teknikariena eta ekimenari dagokion sektoreko enpresaburuena (horiek Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez arituko dira).

Ideación proiektuaren lehen fasea balorazioa da. Gero, ikasleek eta tituludunek aurkeztutako enpresa-ideiak aukeratu ondoren, proiektua osatzeko eta abian jartzeko faseari ekingo zaio, eta gutxienez bi hilabete iraungo du.

CEIN erakundeko ekintzailatzako adituek enpresa sortzeko prozesua ikuskatuko dute (talde-jarduerak, merkatuan sartzeko aholkularitza, laguntza espezifikoa, e.a.), LHko irakasleek aukeratutako proiektuen alderdi teknikoetan duten esperientzia jarriko dute eta, horri guztiari



LHko irakasleei proiektuaren berri emateko aurkezpena.

kanpoko profesionalek enpresa-ekimenek ondo funtziona dezaten ezinbestekoak diren arlo eta gai zehatzetako jakintza gehituko diote.

Informazio-jardunaldia

Ideación proiektua gaur aurkeztu diete LHko irakasleek, eta jardunaldian honako hauek hartu dute parte: Hezkuntza kontseilaria, Jose Iribas; SODENA-CEIN erakundeko zuzendari-kudeatzailea, Carlos Fernandez; Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakaria, Jose Antonio Sarria; eta Nafarroako Gobernuaren Lanbide Heziketako Zerbitzuaren zuzendaria, Marino Barasoain.

Iribas kontseilariak hitza hartu duenean azpimarratu du programaren helburua dela enpresa-proiektuak hautematea “ekintzailtza goiztiarraren ikuspegitik”, eta gazteei enpresa-proiektua eratzeko eta merkaturatzeko babesa eta gidaritza eskaintzea. Alde horretatik, Jose Iribasek ikasleak ekitera animatu ditu, huts egiteko beldurrik ez izatea, izan ere, “huts eginez ikasten dugu”.

Carlos Fernandezek, bere aldetik, esan du proiektu hori Nafarroako Gobernuaren Ekintzailtza Planaren barruan dagoela. Adierazi du, baita ere, gaur eguerdian ireki dela proiektuak aurkezteko epea, eta urria osoan egongo dela irekita.

Azkenik, Jose Antonio Sarriak nabarmendu du lan-merkatuan “LH egin duten langile gehiago hartzeko premia” dagoela, Europako beste herrialde batzuen aldean dagoen “desoreka zuzentzeko”.

Bitartekoak eta konpromisoak

Ideación proiektuak bitarteko hauek jartzen ditu tituludunen eta ikasleen eskura: lan egiteko eta proiektua ezartzeko espazioak, negozioa sustatzeko bulegoak LHko ikastegi guztietan (partaideek proposatutako negozio-ideiak aurkezteko, baloratzeko eta eztabaidatzeko lekuak) eta CEIN erakundearen instalazioak (lan egiteko lekua, Navarra Factori delakora sarbidea eta proiektu pilotuen mintegia).

Aukeratutakoek “burugogor aritu behar dute lanean enpresa sortzeko behar diren 6-8 hilabeteetan”. Horretarako, egunero joan beharko dute, nahitaez, CEINen lan-gunera, eta zorrotz lan egin beharko dute enpresa sortzeko jarritako erronkak betetzeko.

Etorkizun berria

Ideación programa Equilicuá proiektua osatzera dator. Proiektu horren bitartez, LHko ziklo guztietako ikasleek hainbat jarduera gauzatzen dituzte eta prestakuntza jasotzen dute (Enpresa eta Ekimen modulua), betiere berrikuntzaren eta sorkuntzaren sustapenean oinarrituta.

Lanbide Heziketaren bereizgarrietako bat izan da, beti, gaitasun praktikoak garatzea, gero besteren kontura lan egiteko. Ideación programaren helburua da etorkizun berria sortzea eta LH egin duten gazteek beren enpleguak sortzea edo beste profesional batzuentzako enplegua dinamizatzea.

Alde horretatik, programan Nafarroako Lanbide Heziketako aktore nagusiekin elkarlanean aritzeko loturak daude ezarrita. Gainera, eskala-ekonomiak sortu nahi dira. Ekimena Nafarroako Gobernuaren [Ekintzailtza Planaren](#) esparrukoa da.

Ekimenaren helburuak hauek dira, besteak beste: ikasleek prestakuntzarekin zerikusia duten negozio-ideiak azaltzeko prozedura erabilgarri eta gertukoa sortzea, hasierako faseetan dauden ekintzaileak hautematea eta enpresa berriak sortzeko prestatzea, autoenplegua eta enpresa-sorkuntza sustatzea, gazteen langabeziari aurre egitea, enpresa berri horiek gerora besteren konturako enplegua sor dezaten oinarriak jartzea, eta Lanbide Heziketaren eta ekintzailtza babesteko dauden beste bitarteko batzuen arteko elkarlanerako zubiak diseinatzea.